



Europar Batasuneko Kontseiluaren balorazioak Brusela, 2020ko uztailaren 17tik 21era

Joan den ekainaren 19an ospatutako lehenengo konferentzia telematikoaren ostean, EBko 27 Estatu Kideetako estatuburuek eta gobernuburuek zuzeneko lehenengo bilera izan zuten, 2021-2024 berreskurapen-funtsaren eta erkidegoko hurrengo aurrekontuaren edo 2021-2027 Urte anitzeko Finantza-esparruaren inguruan eztabaidatzeko. Lau egun eta gau luzeetako negoziazioen ostean, EBko buruak bi gai horien inguruko akordio batera heldu dira gaur, uztailak 21, 05:30ean. Azkenik, Berreskurapen-funtsa honela banatuko da: 390.000 milioi diru-laguntzatan eta 360.000 mailegutan. Gainera, EBren hurrengo zazpi urteetarako aurrekontua 1,074 bilioi eurokoa izango da.

Koronabirusaren pandemiak eragindako kalte ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta Europaren susperraldia aktibatzeke, Europako Batzordeak maiatzaren 27an aurkeztu zituen bere proposamenak, zehazki, *Next Generation EU* (NGEU) izendatutako susperraldi-funts bat (ikus I. Eranskina) sortzeko, 750.000 milioi euroko zuzkidura izango duena 2021-2024 eperako (500.000 milioi diru-laguntzatan eta 250.000 mailegutan; horietatik, Espainiak, guztira, 140.340 milioi zituen aurretik esleituta, hain zuzen ere, 77.218 diru-laguntzatan eta 63.122 mailegutan). Halaber, proposamenak aurkeztu zituen hurrengo 2021-2027 Urte anitzeko Finantza-esparrurako, 1,1 bilioi euroko aurrekontu-aurreikuspenarekin. Beraz, batzordeak 2021-2027 eperako proposatutako finantziarioa, guztira, 1,85 bilioi eurokoa zen. Bi proposamen horiek, negoziatio-ondorioetarako, pakete bakar gisa hartzen dira eta Estatu Kideekin zein Europako Parlamentuarekin itundu behar dira.

Ekainean egindako bideokonferentzia bidezko lehenengo bileran, EBko buruak ez ziren bat etorri batzordearen paketeari dagokionez. Hortaz, Europar Batasuneko Kontseiluaren presidentea den Charles Michelek negoziatioak eta alde biko bilerak abiarazi zituen estatu guztiekin eta Europako Parlamentuarekin. Elkarrizketa horietan oinarrituta, presidentek uztailaren 10ean aurkeztu zuen NGEU Funtsaren (2021-2024) eta Urte anitzeko Finantza-esparruaren (2021-2027) proposamen berrikusia, etorkizuneko balizko akordio baten oinarritzko osagaiak identifikatuz (ikus II. Eranskina). Hain zuzen ere, proposamen hori izan da Europar Batasuneko Kontseiluaren lehenengo eguneko eztabaiden gai nagusia (uztailak 17).

NGEU Funtsari dagokionez, Michelen proposamenak Europako Batzordeak proposatutako kopuru osoa mantentzen zuen, hau da, 750.000 milioi euro, baita itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen (500.000 milioi euro) eta maileguen (250.000) arteko proportzioa ere. Hala eta guztiz ere, herrialdeen funtsaren laguntzen emakidaren



gaineko kontrola areagotzen zuen eta banaketa-irizpideak aldatzen zituen. Estatuek Europako Batzordeari aurkeztu behar dizkiote Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoaren (MRR) 2021-2023 Susperraldi eta Erresilientzia Plan Nazionalak, diru-laguntzak jaso ahal izateko. Hala, plan horiek onetsi ahal izateko, Kontseiluaren botoen gehiengo kalifikatua izan beharko lukete eta hori batzordearen proposamenarena baino baldintza zorrotzagoa da. Halaber, banaketa-irizpideak aldatzen dira; 2021 eta 2022 bitartean konprometituko den diruaren % 70 batzordeak ezarritako irizpideei jarraiki banatuko da (Estatuen BPGd, biztanleria eta langabezia-tasa 2015 eta 2019 bitartean). Bestalde, 2023tik aurrera konprometituko den gainerako % 30a 2020an eta 2021ean herrialde bakoitzean erregistratutako BPGdren jaitzieraren arabera esleituko da. Horregatik, 2022an, planen berrikuspen bat egingo litzateke, 2023rako banaketa-irizpideetan, aldaketa kontuan hartzeko. 2021-2027 Urte anitzeko Finantza-esparruari dagokionez, presidentearen proposamenak 1,074 bilioi euroko aurrekontua jasotzen zuen.

Michelen proposamenak ez zuen lortu estatuburuak eta gobernuburuak bileraren lehenengo egunean ados jartzea. Horregatik, Europar Batasuneko Kontseiluaren bigarren eguneko goizean (uztailak 18), presidentek lehenengo dokumentu bat aurkeztu zuen konpromiso-proposamen bat bilatuz, NGEU funtsaren diru-laguntzak 50.000 milioi eurotan murrizten zituena. Beraz, diru-laguntzak 450.000 milioi eurora murriztuko lirateke eta maileguak, aldiz, 300.000 milioira igoko lirateke, funtsaren guztizko kopurua 750.000 milioi eurotan mantenduz. Proposamenak Herbehereen eta gainerako herrialde *arinen* (Austria, Suedia eta Danimarka) nahiak ase nahi zituen eta larrialdi-galga bat txertatzea jasotzen zuen: horrekin, beste bazkide bati laguntzak ordaintzeari buruzko zalantzak dituen herrialdeak aukera izango luke, hiru eguneko epean, kontu hori EBko Ekonomia eta Finantza buruek edo ministroek osatutako bilera batean jorratzeko eskatzeko. Horrez gain, konpromisoak Urte anitzeko Finantza-esparruarekiko deskontuak edo konpentsazio-txekeak areagotzen zituen Herbehereentzat, Austriarentzat, Danimarkarentzat eta Suediarentzat. Egunaren amaieran, argi geratu zen ez zela posible izan lau arinen arteko aldeak gainditzea eta horietara gehitu ziren Finlandia eta gainerako bazkideak.

Hirugarren egunaren hasieran (uztailak 19), Michelek bigarren konpromiso-testu bat aurkeztu zuen; bertan, NGEU Funtsaren 750.000 milioiak mantentzen zituen, baina diru-laguntzak 400.000 milioira murrizten zituen (aurreko eguneko proposamenean baino 50.000 gutxiago eta batzordearen hasierako proposamenak baino 100.000 gutxiago) eta maileguak 350.000 milioira igotzen zituen. Proposamen horri esker, urrats txiki batzuk eman ahal izan ziren balizko adostasun batera heltzeko, zehazki, lau herrialde *arinei* emakidak eginez. Hala eta guztiz ere, proposamen horrek ez zituen erabat ase bere eskariak, beherapena ez baitzitzaien nahikoa iruditu. Arratsalde erdian, Finlandiak, lau *arinen* babesarekin, proposatu zuen funtsa 700.000 milioira murriztea, erdia laguntza zuzenak eta beste erdia maileguak. Baina Frantziak, Alemaniak eta



Espainiak doitze hori ukatu zuten, diru-laguntzetan 400.000 milioietatik jaisteari uko egin ziotelako. Horrez gain, *arinek* Urte anitzeko Finantza-esparrurako urteko ekarpenean dituzten deskontuak gehiago areagotzeko eskatzen zuten.

Goizaldea sutzuki negoziatzen igaro ostean, EBko buruak ez ziren gai izan akordio batera heltzeko, nahiz eta hogeitaz orduruz eztabaidatu ostean, akordiorako bide bat ireki zen. Negoziazioak laugarren eguneko (uztailak 20) arratsaldean berrartu ziren; orduan, Michelek konpromiso-proposamen berri bat aurkeztu zuen. Zehazki, horrek 750.000 milioi eurotan mantentzen zuen NGEU Funtsa, itzuli ezin daitezkeen diru-laguntzak 390.000 milioira murriztuz eta maileguak 360.000 milioira igoz. EBko Kontseiluaren presidenteak proposatzen zuen 2021-2027 eperako Urte anitzeko Finantza-esparruak 1,074 bilioi euroko zuzkidura edukitzea. Zifra hori Europako Batzordeak hasiera batean proposatutako 1,1 bilioi euroen azpitik dago, baina Michelek konferentziaren hasieran EBko buruei proposatutako zifra berbera da.

Akordioa uztailaren 21eko goizaldean lortu zen eta Europar Batasuneko Kontseiluaren ondorioen testuan jasotako honako alderdi hauek aurreikusten ditu:

- NGEU Susperraldi-funtsa zor komunarekin finantzatuko da eta 750.000 milioi euroko zuzkidura izango du; horietatik, 390.000 milioi diru-laguntzatan ordainduko dira eta 360.000 milioi mailegutuan, herrialde kaltetuenei laguntzeko xedearekin. Atzeralditik ateratzeko estrategia 1,074 bilioi euroko 2021-2027 Urte anitzeko Finantza-esparru batean oinarrituko da. Paketearen bolumen osoa (1,824 bilioi euro) EB osoaren BPGdren % 5aren baliokidea da.
- NGEU Funtsa honela banatuko da: Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR) (672.500 milioi); REACT-UE kohesio-ekimena (47.500 milioi); Bidezko Trantsizioaren Funtsa (FTJ) (10.000 milioi); Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (FEADER) (7.500 milioi); InvestEU (5.600 milioi); Europa Horizontea ikerketa-programa (5.000 milioi) eta Babes Zibileko RescEU Mekanismoa (1.900 milioi). Batzordearen proposamenarekin alderatuta, diru-laguntzak 110.000 milioi murrizten dira eta maileguak neurri berean igotzen dira, hasiera bateko 250.000 milioiekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, herrialdeen erreformak eta inbertsioak finantzatuko dituen funtsaren funtsezko zutabea da Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa eta horren zuzkidura 672.500 milioi eurora igotzen da, batzordeak proposatutako 560.000 milioiekin alderatuta. Horietatik, 312.500 milioi euro diru-laguntzak izango lirake (aurreko planaren 310.000 milioi euroekin alderatuta) eta 360.000 milioi euro (aurrekoan 250.000) maileguak izango lirake. Diru-laguntza horiek banatzeko irizpideei erreparatuz, dirua bi tarte hauetan banatzen da: diruaren % 70 2021 eta 2022 bitartean konprometituko da eta gainerako % 30a 2023ko amaierara arte.
- Itzuli ezin daitezkeen laguntzen emakidaren gaineko kontrolari dagokionez, herrialdeek, Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan, bere Susperraldi eta Erresilientzia Planak bidaliko dizkiote batzordeari eta hogeita



zazpi herrialdeen gehiengo kalifikatu baten bidez onetsi beharko dira hauek ere bai. Aldi berean, larrialdi-galga bat gehitzen da; horren bidez, laguntza-tarte bakoitzaren ordainketa baimentzerakoan, herrialde batek edo batzuek zalantzak badituzte, kontu hori EBko Kontseiluari kontsultatu ahalko diote eta ordainketa hori argitu arte geldiaraziko da.

- Areagotzen dira herrialde *arinen* deskontuak 2021-2027 Urte anitzeko Finantza-esparrurako ekarpenean, jasotzen dutena baino gehiago jartzeagatik eta, Alemaniak, aldiz, mantendu besterik ez du egiten (3.671 milioi euro urtean). Herbehereena 1.921 milioi eurokoa izango da, batzordearen hasiera bateko proposamenean jasotako 1.576 milioiekin alderatuta; Danimarkarena 197tik 377 milioira pasako da; Austriarena 237tik 565 milioira eta Suediarena 798tik 1.069 milioira.
- Lehenengo aldiz txertatzen da zuzenbidezko estatuarekin lotutako baldintza, baita Urte anitzeko Finantza-esparruaren eta NGEU Funttsaren gastuaren % 30ak klima-helburuak babestearen helburua ere.

NGEU Funttsaren guztizko bolumenaz eta diru-laguntzen eta maileguen proportzioaz gain, eztabaidetako blokeo-puntuak hauek izan dira: laguntza horiek jasotzeko baldintzak; Europako finantziarioa jasotzea eta zuzenbidezko estatuarekiko errespetua lotzeko proposamena eta herrialde arinek Urte anitzeko Finantza-esparrurako ekarpenean dituzten deskontuak, jasotzen dutena baino diru gehiago emateagatik. Ituna lortzeko, emakidak egin behar izan zaizkie *arinei* (Herbehereak, Austria, Danimarka eta Suedia) eta horiei Finlandia gehitu zaie. Hain zuzen ere, lortu dute laguntzen bolumena murriztea, horien gaineko kontrol handiagoa izatea eta aurrekonturako ekarpenean bere deskontuak mantentzea.

Era berean, EBren historian lehenengo aldiz, Europako Batzordea zorpetuko da eta diru-laguntzak baterako zor-emisioekin finantzatuko dira.

Espainiak 140.000 milioi euro jasoko ditu NGEU Funtsetik; horietatik, 72.700 milioi itzuli ezin daitezkeen transferentzian emango dira. Beraz, batzordeak maiatzean proposatutako aurretiatzko esleipena mantentzen du.



I. ERANSKINA

Europako Batzordearen proposamena NGEU Susperraldi-funtsari (2021-2024) buruz, maiatzak 27

Batzordeak proposatzen du NGEU funtsaren 750.000 milioiak (500.000 milioi itzuli ezin daitezkeen diru-laguntzatan eta 250.000 milioi mailegutan) hiru zutabetan inbertitzea.

1. Estatu Kideak inbertsioetan eta erreformetan babestea diru-laguntzen eta maileguen bidez: Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR) (560.000 milioi; horietatik, 310.000 transferentzian eta 250.000 mailegutan); REACT-UE kohesio-ekimena (50.000 milioi); Bidezko Trantsizioaren Funtsa (FTJ) (30.000 milioi) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (FEADER) (15.000 milioi). Lehenengo zutabearen barruan, Espainiarentzako aurretiazko esleipena hauxe da: 140.340 milioi (77.218 diru-laguntzatan eta 63.122 mailegutan) honela banatuta: Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR) (124.740 milioi: 61.618 diru-laguntzatan eta 63.122 mailegutan); REACT-UE (13.000 milioi); FTJ (1.300 milioi) eta FEADER (1.300 milioi).
2. EBko ekonomia suspertzea inbertsio pribatuak bultzatuz bermeen bidez: Kaudimena Babesteko Tresna (26.000 milioi) eta InvestEU (30.300 milioi). Funtsak Europako Inbertsio Bankuak kudeatuko ditu. Ez dago aurretiazko esleipenik estatu bakoitzeko.
3. Krisiaren ikasbideak aplikatzea diru-laguntzen bidez: EU4Health osasun-programa (7.700 milioi); Babes Zibileko RescEU Mekanismoa (2.000 milioi); Europa Horizontea ikerketa-programa (13.500 milioi) eta kanpo-ekintzarako programa (Nazioarteko Lankidetzarako, Garapenerako eta Auzotasunerako Tresna, 15.500 milioi). Ez dago estatu bakoitzeko aurretiazko esleipenik, Europako Batzordeak kudeatutako programak direlako (horietako batzuk diru-laguntzak jasotzeko proposamen lehiakorren deialdien bidez).

NGEU Funtsaren giltzarria Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoa da. Proposatutako banaketa-gakoak hauxe hartzen du kontuan: azken bost urteotako biztanle bakoitzeko BPGd eta langabezia-tasa EBko batez bestekoarekin alderatuta (2015-2019). Diru-laguntzak (eta, eskatzekotan, maileguak) jaso ahal izateko, Estatu Kideek Susperraldi eta Erresilientzia Plan Nazionalak eta Erreformako Programa Nazionalen Eranskin bat aurkeztu beharko dituzte (estatuak urtero apirilean aurkezten dituzten hazkundera eta lehiakortasuna sustatzeko oinarritutako egiturazko erreformen programak; horiek aurkezten dituzte Europako Seihiilekoaren esparruan, hau da, politika ekonomikoen eta aurrekontu-politiken koordinaziorako zikloan, zeinaren bidez herrialdeek EBren helburuetara eta arauetara egokitzen dituzten) eta horiek Europako Batzordeari bidali. Susperraldi eta Erresilientzia Plan Nazionalak urtero aurkeztu ahalko dira, zehazki, apirilaren 30a baino lehen. Babesa ahalik eta arinen emateko, batzordeak



Estatu Kideak animatzen ditu planaren lehenengo zirriborroa aurten aurkeztera, hain zuzen ere, urriaren 15a baino lehen eta aurrekontu nazionalaren proiektuarekin batera.

Planek barne hartuko dituzte hurrengo lau urteetarako inbertsio publikoko eta erreformako proiektuen agendak. Inbertsioak eta erreformak koherenteak izan behar dira Europako Sei hilekoan adierazitako erronkekin eta lehentasunekin, batez ere, Herrialde Bakoitzeko Berariazko Gomendioekin (REP), Erreformen Programa Nazionalekin eta batasunaren epe luzerako estrategiekin, zehazki, Europako Itun Berdearekin eta eraldaketa digitalarekin, Estatu Kideen energiari eta klimari buruzko planekin eta, hala badagokio, bidezko trantsizioko planekin eta elkartze-akordioekin, baita batasunaren funtsen esparruan ezarritako programa operatiboekin ere.

Batzordeak honen arabera ebaluatuko ditu planak: Estatu Kideen trantsizio ekologikoa eta digitala; jasangarritasun lehiakorrean duten eragina; erresilientzia ekonomikoa eta soziala eta hazkunde jasangarria. Batzordeak, Estatu Kideen aldeko irizpenarekin, lau hilabeteko epean, erabaki bat hartuko du, non Estatu Kideari esleitutako finantza-ekarpena ezarriko den. Ez dago nazio mailako lagundutako finantzatzerik. Ezta transferentziarekin lotutako inolako baldintzarik ere. Diru-laguntzak eta maileguak tarte desberdinetan ordainduko dira, Estatu Kideek bere planetan zehaztutako bitarteko helburuak eta xedeak lortutakoan (printzipioz, urtean bi aldiz). Finantziazioa 2024ko abenduaren 31ra arte egongo da eskuragarri.



II. ERANSKINA

Europar Batasuneko Kontseiluaren presidentearen proposamena NGEU Susperraldi-funtsari (2021-2024) eta Urte anitzeko Finantza-esparruari (2021-2027) buruz, uztailak 10

Presidenteak uztailaren 10ean aurkeztu zuen NGEU Susperraldi-funtsaren (2021-2024) eta Urte anitzeko Finantza-esparruaren (2021-2027) proposamen berrikusia, etorkizuneko balizko akordio baten oinarritzko sei osagaiak identifikatzen dituena.

1. Urte anitzeko Finantza-esparruaren tamaina. 1,074 bilioi proposatzen ditu.
2. Diru-itzultzeak mantenduko dira herrialde hauentzat: Danimarka, Alemania, Herbehereak, Austria eta Suedia.
3. NGEU Susperraldi-funtsa. 750.000 milioi proposatzen ditu.
4. Maileguak eta diru-laguntzak. Proposatzen du NGEU funtsaren mailegu, berme eta diru-laguntzen arteko oreka mantentzea.
5. Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoaren aurretiazko esleipena. Proposatzen du Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoaren % 70a 2021 eta 2022 bitartean konprometitzea, zehazki, batzordearen esleipen-irizpideen arabera. % 30a 2023an konprometituko da, BPGdren 2020ko eta 2021eko jaitziera kontuan hartuz. Zuzkidura osoa 2026rako ordaindu beharko litzateke.
6. Gobernantza eta baldintzak, hiru helburu garrantzitsurekin.
 1. Susperraldi eta Erresilientzia Plan Nazionalen Gobernantza: Estatu Kideek 2021-2023rako prestatuko dituzte planak Europako Seihilekoarekin bat eginez, zehazki, Herrialde Bakoitzeko Berariazko Gomendioekin bat eginez.
 2. Planak 2022an berrikusiko dira azken esleipen-irizpideak kontuan hartuz: 2021-2022 urteetarako, batzordearen proposamenarekin bat eginez ezarriko dira. Hala eta guztiz ere, 2023rako, 2015-2019 langabezia-tasaren irizpidea 2020-2021 epean zehar antzemandako BPGdren jaitzieran pilatutako galerarekin ordeztzen da eta 2022ko ekainaren 30a baino lehen kalkulatu da.
 3. Plan hauen ebaluazioa Kontseiluak onetsiko du, batzordearen proposamen baten gaineko gehiengo kalifikatuaren botoarekin.

NGEU Susperraldi-funtsari dagokionez, Michelen proposamenak Europako Batzordeak proposatutako kopuru osoa mantentzen zuen, hau da, 750.000 milioi euro, baita itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen (500.000 milioi euro) eta maileguen (250.000) arteko proportzioa ere. Hala eta guztiz ere, herrialdeen kontrola areagotzen zuen funtsaren itzuli ezin daitezkeen diru-laguntzen emakidaren gainean eta banaketa-irizpideak



aldatzen zituen. Hala, onetsi ahal izateko, 2021-2023 Susperraldi eta Erresilientzia Plan Nazionalek Kontseiluaren botoen gehiengo kalifikatua izan beharko dute eta hori batzordearen proposamenarena baino baldintza zorrotzagoa da. Halaber, banaketa-irizpideak aldatzen dira; 2021 eta 2022 bitartean konprometituko den diruaren % 70 batzordeak ezarritako irizpideei jarraiki banatuko da (Estatuen BPGd, biztanleria eta langabezia-tasa 2015 eta 2019 bitartean). Bestalde, 2023tik aurrera konprometituko den gainerako % 30a 2020an eta 2021ean herrialde bakoitzean erregistratutako BPGdren jaitsieraren arabera esleituko da. Horregatik, 2022an, planen berrikuspen bat egingo da, 2023rako banaketa-irizpideetan, aldaketa kontuan hartzeko.

2021-2027 Urte anitzeko Finantza-esparruari dagokionez, Europako Kontseiluaren presidentearen proposamenak Urte anitzeko Finantza-esparruaren tamainari eragiten zion, 1,074 bilioi euroko proposamen batekin, hau da, 2021-2027 urte anitzeko aurrekontuaren aurreko proposamenaren beherapen txiki bat, zehazki, % 2 ingurukoa. Horrek murrizten ditu Europa Horizonte (5.000 milioi euro); InvestEU (10.000 milioi euro) eta Nazioarteko Lankidetzarako, Garapenerako eta Auzotasunerako Tresna (4.700 milioi euro), horiek guztiek NGEU Funtsetik baliabideak jaso zituztenaren argudioarekin. Gainera, heren batean murrizten zuen “Migrazioa eta mugen kudeaketa” izeneko IV. Kapituluak, otsaileko proposamenaren egin zuen bezala. Horrekin batera, Bidezko Trantsizioaren Funtsearen proposamena ere murrizten zen, hain zuzen ere, 10.000 milioietatik jatorrizko 7.500 milioietara (NGEUtik funts honetara egindako 30.000 milioi eko ekarpen berriaz gain). Gainera, horretarako sarbidea 2050erako klima-neutraltasuneko nazio mailako helburu batekin konprometitutako Estatu Kideetara mugatuta dago. Kohesioari dagokionez, otsaileko esparruarekin alderatuta, apur bat areagotzen zen batzordearen proposamena (+ % 1,2), nagusiki, trantsizio-bidean dauden eskualdeei laguntzeko (+ % 2,4).

Era berean, zenbait aldaketa egiten zituen (batzuk aurretik aipatu dira) Europako Batzordearen proposamenetan, hain zuzen ere, guztien adostasuna lortzen saiatzeko:

- Batzordeak murriztu nahi zituen konpentsazio-txekeak mantentzea zergapeko herrialdeentzat.
- 5.000 milioi euro Brexitek gehien eragindako herrialdeak eta sektoreak konpentsatzeko (hedabideen arabera, hori Belgikaren eskari bat izan da, eskualde atlantikook ere eskatu genuena Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeen Konferentzian).
- Aldaketa bat Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoaren banaketa-sisteman, gutxienez, % 30a, pandemiaren aurreko adierazle ekonomikoen arabera egin beharrean, pandemiaren eragin errealaren arabera egiteko.
- Kontseiluaren kontrol handiagoa susperraldi-funtsearen gainean.
- Amortizaziorako epea aurreratzea 2028tik 2026ra, diru-sarreraren iturri berrien onespena bultzatzeko. Izan ere, horiekin ordaindu nahi da 750.000 milioi euroko mailegua.



Kohesio-politikari dagokionez, nabarmendu behar da lagundutako finantzatze-tasak areagotu direla otsaileko negoziazio-esparruarekiko: % 70etik % 85era garapen txikieneko eskualdeentzat; % 55etik % 60ra trantsizio-bidean dauden eskualdeentzat eta % 70etik % 80ra eskualde ultraperiferikoentzat. Euskadi bezalako eskualderik garatuena % 40ko lagundutako finantzatzearekin geratuko lirateke.

Kontzentrazio tematikoari dagokionez, estatu edo eskualde mailan aplika liteke eta eskualderik garatuena esleitutako baliabideak “adimentsu” eta “berde” helburuetan kontzentratu beharko lituzkete, % 30eko gutxiengoarekin “berde” helburuan. Programazio-aldiaren hasieran, Estatu Kideek kontzentrazio tematikoa zein mailatan (estatu edo eskualde mailan) aplikatuko litzatekeen erabakiko dute.

Bestalde, Michelen proposamenak 500 milioi euroko zenbatekoa mantentzen zuen eskualde arteko berrikuntza-inbertsioetarako (Finlandiak 2019ko abenduan egindako proposamenetik, kopurua zifra horretara jaitsi zen, batzordeak proposatutako 970 milioi euroekin alderatuta). Euskadirentzat, tresna berri hau oso garrantzitsua izan daiteke; izan ere, nahiko finantza-kopuru txikia eduki arren, balio erantsi handia izan dezake eskualde arteko lankidetzaren industrialerako.

Zentzu berean, Charles Michelen proposamenak adierazten zuen arreta berezia jarri behar dela Europa Horizontearen bidez finantzatutako jardueren eta batasuneko beste programa batzuek (adibidez, kohesio-politikaren bidez) babestutako jardueren arteko koordinazioan. Testuinguru honetan, sinergia garrantzitsuak beharko dira Europa Horizontearen eta egiturazko funtsen artean, “bikaintasuna partekatzeko” xedearekin, horrela eskualde mailako I+G gaitasuna eta eskualde guztien bikaintasun-poloak garatzeko gaitasuna hobetuz.

Bestalde, mahai gainean zegoen proposamenak Brexitarentzako 5.000 milioiko erreserba bat aurreikusten zuen, Brexitek Estatu Kideetan eta sektorerik kaltetuenetan izandako ezusteko ondorioak arintzeko.

Aurrekoaz gain, proposatzen zen RescEU erreserbaren eta osasun-programaren zuzkidura areagotzea, batzordearen proposamenarekin bat eginez, COVID-19ari eta horren ondorioei erantzuteko.

Trantsizio klimatikoa da zeharkako lehentasun gorena; hala, finantziarioaren % 30a klimarekin lotutako proiektuentzako da. Beraz, susperraldia Europako ekonomien eraldaketan ere zentratu behar da. Urte anitzeko Finantza-esparruaren eta NGEU Funtsaren esparruan egindako gastuek bat egin beharko dute EBren 2050erako klima-neutraltasuna lortzeko helburuarekin, baita EBren 2030erako klima-helburuekin eta Parisko Akordioarekin ere.

Elementu nabarmenetako bat da zuzenbidezko estatuaren eta balio europarren gaiarekin lotutako baldintza. Michelek proposatzen zuen lotura irmo bat ezartzea



finantziazioaren eta gobernantzarekiko zein zuzenbidezko estatuarekiko errespetuaren artean. Zehazki, otsaileko proposamenean, jada proposatzen zen aurrekontu-baldintza berri bat: EBren aurrekontuaren egikaritzapen zuzenari eragiten dion zuzenbidezko estatuarekin lotutako urritasunen bat egotekotan, batzordeak neurri zuzentzaileak proposatuko ditu eta Kontseiluak gehiengo kalifikatu bidez onetsi beharko ditu horiek. Horrez gain, badago batzordea prestatzen ari den zuzenbidezko estatuaren gainbegiratze-mekanismoa. Testuinguru honetan, proposatzen zen batzordeak eta Kontuen Auzitegiak EBren aurrekontuaren egikaritzapenari eragiten dion zuzenbidezko estatuaren gabezia ororen berri ematea. Gainera, Michelek proposatzen zuen zuzenbidezko estatuari eta horrekin lotutako balioei buruzko proiektuentzako finantziazioa areagotzea, Europako Fiskaltzarentzako eta Justizia, Eskubideak eta Balioak Programarentzako finantziazio gehigarri baten bidez, arreta berezia jarriz informaziorik ezan eta hedabideen aniztasunaren promozioan.

Kontseiluan, badaude baldintza horren aurkako zenbait ahots. Adibidez, Portugaleko António Costa lehen ministroak uste du “balioak ez direla erosten” eta, arazoren bat egotekotan, tratatuak erabili beharko liratekeela (7. artikulua), EBn parte hartzeko berezko baldintza bat delako. Susperraldi-funtsaren negoziazioak beste kontu bat dira; horietan, Europako funtsen kontrol egokia bermatu beharko da: “hori guztiz zentzuduna da eta denok onartzen dugu” eta, bere ustez, Hungariak ere onartzen du.

Batasunaren aurrekontuaren diru-sarrerei dagokienez, nabarmendu behar da txeke izenarekin ezagutzen diren zuzenketa-mekanismoak mantentzea proposatzen zela, Danimarkak, Alemaniak, Herbehereek, Austriak eta Suediak batasunaren kutxetara egiten dituzten ekarpenak murrizten dituztenak. Batzordeak horiek kentzea proposatu zuen.

Berezko baliabideen muga edo Estatu Kideek batasunaren aurrekontuan urtean jarri behar dutenaren gehieneko maila EBren NPGren % 1,20koa da gaur egun. Batzordeak proposatzen du muga hori behin betiko igotzea % 1,40ra, hauxe kontuan hartu ahal izateko: Brexitaren osteko garaiaren eta pandemiaren eraginaren ondoriozko NPGren guztizko jaitsiera edo batasunaren aurrekontuaren kargurako bermeez babestutako finantza-tresnen erabileraren ondoriozko betebeharrak asetzeko beharrezko baliabideak. Era berean, proposatzen du berezko baliabideen muga behin-behinean igotzea EBren NPGren % 0,60ra; zehazki, igoera hori soilik egingo da NGEU Funtsaren merkatuko finantziatorako eta 2058ra arte aplikatuko litzateke, hori gehieneko epemugatzat hartuz. Aldi baterako igoera hau lotuta dago EBren kredituen A hirukoitza mantentzeko helburuarekin, aldi berean batzordeari eskala handiko merkatuetan finantzatzea ahalbidetuz.

Berezko baliabide berriei dagokienez, lehenik eta behin, hiru eremu hauetan zentratzea proposatzen zen: baliabide plastikoak; karbono-emisioen doitze-mekanismoa eta tasa digitala.



2021etik aurrera, baliabide plastikoen erabilerarekin lotutako berezko baliabide berri bat egongo da eta batzordea gonbidatzen da, 2021eko lehenengo sei hilekoan zehar, karbono-emisioak doitzeko neurri bat proposatzera. Horrez gain, 2021aren amaieran txertatuko litzatekeen tasa digital bat aurkeztea proposatzen da. Era berean, batzordea gonbidatzen da Emisio-eskubideen Merkataritza-araubideari buruzko proposamen berrikusi bat aurkeztera. Azkenik, finantza-transakzioen gaineko zergaren proiektuan lan egiten jarraituko da.

Kontseiluaren aurretik, Svenja Schulze Alemaniako Ingurumen ministroak adierazi zuen zalantzak zituela, baliabide plastikoen gaineko zerga EBko berezko baliabideen iturria ote zen. Schulzek zalantzan jarri zuen diru-sarreraren iturri berri honen alde egitearen logika; izan ere, zerga-eskemak arrakasta izatekotan, iturri hori murriztuko litzateke, bere helburua plastikoaren erabilera murriztea baita: “nire ustez, etengabe diru-sarrerak sor ditzaketen zerga jasangarrietan pentsatu beharko genuke”.

Ezin dugu ahaztu prozeduretan eman beharreko hurrengo urratsa Parlamentuaren eta Kontseiluaren arteko negoziazioak izango direla, lehenengoaren baimena behar delako Urte anitzeko Finantza-esparrua ezartzeko. Parlamentuak nabarmendu egin du ez duela baimenik emango baldin eta ez bada paketearen sartzen EBren finantza-sistemaren erreforma, EBren berezko baliabide berriak txertatuz.

Urte anitzeko Finantza-esparruaren arautegia ezarri ostean, horren zein NGUE Funtzen esparruko programen eta funtsen gasturako legegintza-ekintzen prestakuntzarekin jarraitu ahalko da eta hori amaitu ere bai.